

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea udalaren materialarekin edo makineriarekin zerbitzuak ematearen prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari

Udalbatzak 2017ko apirilaren 25eko osoko bilkuran onartutako eta 2017ko maiatzaren 12ko ALHAOn (53. zk.a) argitaratutako erabakiaren, udalaren materialarekin edo makineriarekin zerbitzuak ematearen prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari hasierako onarpena eman zionaren, aurka erreklamazioak aurkezteko epea bukatuta, erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko erabaki bihurtzen da, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako toki ogasunak arautzen dituenak, 16.3 artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horrengatik, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, argitara ematen da udalaren materialarekin edo makineriarekin zerbitzuak ematearen prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantzaren eranskinaren aldaketa. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

ERANSKINA

Udal baskulan pisatzea:

- Pisaketa bakoitzeko, 12.000 kilo baino gutxiago 1,00 €
- Pisaketa bakoitzeko, 20.000 kilo baino gutxiago 2,00 €
- Pisaketa bakoitzeko, 30.000 kilo baino gutxiago 3,00 €

Agirien fotokopiak 0,15 €/ale

Udal agiritegiko fotokopiak 0,50 €/ale

Planoen fotokopia 1,00 €/ale

Faxa 1,00 €/ale

Idazkariaren egiaztageria 2,00 €/ale

Laguntzak, dirulaguntzak eta bekak eskatzeko egiaztageriak 1,00 €/ale

Agiri ofizialen fotokopiak egiaztatzea 2,00 €/ale

Katastro agiriak eta eskaerak 2,00 €/ale

Osoko bilkuretako akten kopiak 1,00 €/ale

Agiriak bikoiztea 0,60 €/ale

Hirigintza txostenak egitea 30,00 €/ale

Erabaki horrek administrazio bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egoki jotzen den beste zernahi errekurto ere badago jartzea.

Guztiekin jakin dezaten eta ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Navaridas, 2017ko uztailaren 6a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ